ORIOKO HERRIA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO PLANA

2025-2030

- Hizlaria / Ponente / Speaker:
- **Pilar Azurmendi Echegaray**
- Kargua / Cargo / Position:
- **Arquitect**
- Erakundea /Entidad / Entity:
- **Orioko Udala**

ORIO
marea bizian



UR KONTINENTALEK ERAGINDAKO UHOLDE ARRISKUA



- *Inundabilidad de 10 años de periodo de retorno*
- *Inundabilidad de 100 años de periodo de retorno*
- *Inundabilidad de 500 años de periodo de retorno*
- *PIPI: inundabilidad de 10 años de periodo de retorno*
- *PIPI: inundabilidad de 100 años de periodo de retorno*
- *PIPI: inundabilidad de 500 años de periodo de retorno*

ITSASOAREN MAILAREN IGOERA











Argazkien iturria: Sare sozialak eta Orioko bulego teknikoa

UHOLDE ARRISKUA





Argazkien iturria: bulego teknikoa









Argazkien iturria: bulego teknikoa











ırria:Sare sozialak eta bulego teknikoa

ITSASALDI ARRISKUA













HAIZETEAK













- LUIZI ARRISKUA- ITSAS LABAR ETA EZPONDEN EGONKORTASUNA







TEMPERATURA IGOERA- SUTE ARRISKUA- BIODIBERTSITATEA GALTZEA ESPEZIE INBADITZAILEAK



En 2014, la ciclogénesis explosiva Stefhanie, produjo grandes daños en el espigón de abrigo y produjo la destrucción de unos 30-40ml del contradique de abrigo de protección de la playa.



NATURAN OINARRITUTAKO ESKU HARTZEAK











NATURAN OIHARRITUTAKO EKIMENAK
HONDARTZAKO DUNA



PALOTAKO UMAELA BERRESKURATZEA









ANTROPIZATUTAKO GUNEAK BERRESKURATU







ANTROPIZATUTAKO GUNEAK
BERRESKURATU-HEZEGUNEAK
BERRESKURATU

















AZALERA GOGORREKO EREMUAK AZALERA BERDEEN BITARTEZ ORDEZKATU



BIODIVERSIDAD



SOCIEDAD



PERMEABILIDAD















KOSTA ERTZEKO ERAIKINEN BAZTERTZEA



ATERPE KLIMATIKOEN SORRERA











KARBONO URDINA: ORIAKO ESTUARIOAN ZOSTERA NOLTEI ESPEZIE BERRESKURATZEA





EGITURA GRISEZKO INSTALAKUNTZAK- EURI URETAKO KLAPETAK







EURI URAK PONPATZEKO GUNEAK





	Gaur Egun	202
tsumoaren	1.709.254 kWh	1.281
ontsumoaren ta	1.422.533 kWh	1.138
	894,2 Tona CO_2	715,36
	%11,9	

ORIOKO ENERGIA PLANA GAUZATZEA: ISURKETAK MURRIZTEA

ORIOKO UDAL ENERGIA PLANAREN EBALUAZIOA 2025

4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoarenak ezarritako betez, Orioko Udalak 2019an, **2020-2030 Energia plana idatzi** eta onartu zuen.
Legeak ezarritajkoaren baitan, 2025 urterako udalak bere energia kontsumoa %30ean murriztu behar zuen eta 2030erako %40a.

KONTSUMO ELEKTRIKOA 2018:

Kontsumo Elekriko TOTALA 2018: 1.709.254Kwh

Kontsumo altuena: Argiteri publikoa: 681.622kwh

KONTSUMO TERMIKOA

Kontsumo Termiko TOTALA 2018: 1.422.533Kwh

Kontsumo Altuena: Karela Kiroldegia: 768.244kwh

ENERGIA KONTSUMOA GUZTIRA 2018: 3.131.787KWH

- **ENERGIA ELEKTRIKOA 2025: 1.184.857 kWh- %30 eko Jaitsiera BETETA**
- **ENERGIA TERMIKOA 2025: 1.102.944 kWh- %22,50 ko Jaitsiera**

ENERGIA KONTSUMOA GUZTIRA 2025 EAN: 2.287.801 KWh-
Helburua: 2.192.251 Kwh
%27-A JAITSITA

Kontsumo gehien zituzten eraikin eta instalakuntzetan hartutako neurrien ondorioz :

Kiroldegiko Kontsumo termikoa 2025: 268.854 Kwh (Kontsumoaren %65-eko jaitsiera 2018ko kontsumoarekin alderatuta)

Kale Argiaren Kontsumo elektrikoa 2025:273.633,36Kwh (Kontsumoaren %60-eko jaitsiera 2018ko kontsumoarekin alderatuta)

Sorkuntza bultzatuz:

Gaur egun Orioko udalak 8 instalakuntza Fotoboltaiko ditu. Horietatik 4, emakidan emanak dituen ostalaritzako eraikinetakoak dira (hondartzako 3 txiringitoak eta Kanpineko Taberna) eta beste 4ak bere instalakuntzetan.
2025ean martxan zeudenak:

- Kiroldegiko 80Kw-ko instalakuntza fotoboltaikoa
- Kanpineko 44KW-ko instalakuntza fotoboltaikoa

2026 urtean zehar, 100kw -ko Zaraguetako instalakuntza, kanpineko 15KW-ko instalkuntza osagarria eta Haurreskolako 16KW-ko instalakuntza fotoboltaikoak martxan jarriko ditu udalak



ORIOKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PLANA IDAZTEA

2026KO MARTXOA





Orioko udalak 2006, 2012 eta 2021 urteetan, Mugikortasunari lotutako planak burutu ditu, kasu bakoitzean ardatz eta oinarri desberdinak kontuan hartuz. Hiriko Mugikortasun Jasangarrirako Plana ezinbesteko tresna da hiri bateko mugikortasun-baldintzak hobetzeko, egungo mugikortasun sistemak eragiten dituen ondorio negatibo zuzenenak murrizten laguntzeko, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, gizarte-desberdintasuneko eta irisgarritasuneko hesi eta oztopoak hausteko eta hiriaren bizigarritasuna hobetzeko.

Azken urte hauetan, azterketa hauetanz gain, bizikleta bideak hobetzeko hainbat lan burutu dira, Gipuzkoako Foru Aldundoiaren laguntzaz eta herriko hainbat gune oinezkotzeko lanak burutu dira baina jarduera guzti hauetaz haratago, herriko irakurketa orokor bat eta etorkizuneko lehentasuneko ekintzak lerratuu eta bideratzeko gidalerroak ezartzeko beharra dauka udalak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legean zehaztutakoaren baitan eta baita 11/2023 Euskadiko Mugikortasun jasangarriko Legeak zehaztutakoaren baitan, Orioko Udalak Mugikortasun Jasangarrirako plan orokor bat idatzi nahi du herriko gaur egungo egoerara egokituta eta Mugikortasun jasangarrirako legeak zehaztutako oinarriak aintzat hartuta.

Idatzi nahi den planak mugikortasuna antolatzeko udal-estrategia baterako irizpideak eta helburuak ezartzen lagundu behar du, eta sortzen diren proiektuen oinarri izan behar du. Azken batean, Orioko herritarren joan-etorriak gero eta modu seguruagoan, merkeagoan, ekologikoagoan eta irisgarriagoan egin daitezen sustatzeko alternatiba justifikatuak aurkitu behar ditu, horrela gizarte-ekitateari eta lurralde-kohesioari lagunduz. Planaren helburu orokorrak hauek dira:

a) Pertsonen eta salgaien mugikortasunean erregai fosilak erretzea murriztea.
b) Motordun garraioak sortutako poluzio atmosferikoa eta akustikoa murriztea.
c) Hiriko eta landako ingurumena, herritarren osasuna eta segurtasuna eta ekoizpen-ereduaren eraginkortasuna hobetzea motorrik gabeko garraioaren bidez.
d) Mugikortasun iraunkorreko politikak energia-, ingurumen-, hirigintza- eta lurralde-antolamenduko politikekin koordinatzea.
e) Garraio-azpiegitura eta -zerbitzuetako inbertsioak arrazionalizatzea, efizientzia-irizpide objektiboetara egokituz.
f) Bide- eta ingurumen-hezkuntzako politika bat garatzea mugikortasunaren arloan

Orioko Udalak zero emisioko hiru ibilgailu elektriko erosi ditu 2025ean, udal flotaren berritze prozesuaren baitan. Legez dagokion betebeharra betetzeaz gain, klima-aldaketaren aurrean emisioak murrizteko duen konpromisoari erantzuten dio neurri honek.

Ibilgailuak berritzeko prozesua lizitazio bidez gauzatu da, eta esleipena hiru lotetan egin da, ibilgailu bakoitzaren erabilera eta beharrak ezberdinak direlako: udaltzaingoaren zerbitzurako ibilgailu bat, udal kanpinerako beste bat, eta brigadaren lanetarako kamioneta bat. Guztira, ibilgailu berrien inbertsioa 129.590,75 eurokoa izan da.

Ibilgailu elektrikoen aldeko apustua

Horren aurretik, garbiketa zerbitzua esleitzeko prozesuan, beste bi ibilgailu eskuratu zituen Udalak: bi ibilgailu elektriko txiki, batetik, eta kamioneta hibridoa, bestetik. 2024az geroztik, udalerriko garbiketa lanetan erabiltzen dira, egunero.

Honekin guztiarekin, Orioko Udalak berretsi egin du klima-aldaketaren aurkako borrokan eta emisio gutxiagoko mugikortasun eredu baten alde duen konpromisoa.

